



# ZALDIBAR

Elizateko Udala

**ZALDIBARKO XIV. NEGUKO  
AZOKA**  
**Eguna: urtarrilak 22**  
**Lekua: Euskal Herria etorbidean**

## DEIALDIA

### A) LEHIAKETA-ERAKUSKETA:

1. Baserriko produktuak (barazkiak, frutak eta okelaz egindako produktuak)
2. Mintegietako landareak
3. Txakolina
4. Ogia eta gozogintza.
5. Eztia
6. Gazta

## PARTAIDEAK

DURANGALDE, LEA-ARTIBAI, BUSTURIALDE, DEBA BARRENEKO ETA DEBA GOIENENKO nekazariak izango dira bertan.

Salbuespen gisa, EZTI LEHIAKETAN aipatu herrietako erlazainez gainera, BIZKAIKO BESTE HERRI GUZTIETAKO EK ere parte hartu ahal izango dute.

## IZEN-EMATEAK

Izena emateko epea **abenduaren 9tik 23ra** bitartean egongo da zabalik. Horretarako jo Zaldibarko udal-bulegoetara edo deitu 946827016 telefonora.

## EPAIMAHAIA

Zaldibarko Udalak izendatuko dituen herritarrek osatuko dute epaimahaia.

## PRODUKTUEN ERAKUSKETA-LEHIAKETARAKO OINARRIAK

1.- BASERRIKO PRODUKTUAK (BARAZKIAK, FRUTAK ETA OKELAZ EGINDAKO PRODUKTUAK)

### Okelaz egindako produktuen postuak

- Etiketatuta egin behar dira.
- Ez dira jendearen eskura izango; beira arasa bat edo antzekoa ipini behar da.
- Prezio eta kalitateei buruzko kartelak ipini behar dira.
- Salmentaz arduratzen diren beharginek erabiltzaile karneta eduki behar dute.

Ortuari eta fruten arloan derrigorrean behar da nekazaritza ustiapeneko txartela.

Produktu guztiak jendaurreko salneurria adierazten duen eta ondo ikusten den kartel batez identifikatu behar dira.

Ez dago ortuariak eta frutak lurraren kontra ipintzerik.

Barazki kontserbak saldu ahal izateko, osasun erregistroko zenbakia eduki behar dute.

Epaimahaikoek lehiakidearen beraren ortuan hazitako produktuak baino ez dituzte izango kontuan; hala ere, lehiakide bakoitzak nahi duen beste produktu erakutsi ahal izango ditu, SAT (Sociedad Anónima Transformadora) bezalako baserritar elkarteetako kide diren lehiakideak ere onartuak izango dira. Goizeko 10:00etatik aurrera epaimahaikoek produktuen kalitateari buruzko iritzia emango dute.

Birsaltzaileei edota produktu desberdinen saltzaile ibiltariei ez zaie utziko azoka barruan erakusketarik egiten.

## 2.- MINTEGIETAKO LANDAREAK

Partaideek eurek hazitako bertako landareak aurkeztu behar dituzte, eta goizeko 10:00etatik aurrera epaimahaikoek landare horien kalitatearen gaineko iritzia emango dute.

## 3.- TXAKOLINA

Produktua derrigorrean egon behar da Osasun Erregistroan eta Botilatze Erregistroan inskribatuta.

Etiketari ondoko hauek agertu behar dira:

- Produktuaren izena
- Helbidea
- Jatorri izena
- Kantitate garbia zentilitroetan
- Botilatze erregistroa
- Lotea
- Botila bakoitzak edo botila sortak prezioa eduki behar dute agerian.

Lehiakideek eurek ateratako hogeita hamar (20) botila txakolin aurkeztu behar dituzte gutxienez, eta goizeko 10:00etatik aurrera epaimahaikoek txakolinaren kalitatearen gaineko iritzia emango dute.

## 4.- OGIA eta GOZOGINTZA

Establezimenduaren titularrak Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrean eduki behar dute izena emanda.

Ontziratu barik dauden ogi eta ogi berezi guztiak ez dira jendearen eskura izango.

Galarazota dago produktu hori desizoztuta saltzea.

Gozogintzako produktuen etiketan ondokoak agertuko dira:

- Produktuaren izendapena
- Osagai zerrenda
- Edukiera garbia
- Iraungitze-data
- Kontserbazio jarraibideak
- Enpresaren identifikazioa: egoitza eta helbidea
- Fabrikazio lotearen identifikazioa

- Produktua osorik edo zatika salduko da eta zati bakoitzak prezioa izan behar du agerian.

Produktu horien egileek erabiltzaile karneta eduki behar dute.

Ogia banandu eta saltzeko prozesuan beren beregi galarazota dago ogi otzarek lurra zuzenean ukitzea.

Ez dago ogi desizoztua saltzerik.

Lehiakideek eurek egindako 10 ogi aurkeztu behar dituzte gutxienez, eta goizeko 10:00etatik aurrera epaimahaikoek ogien kalitatearen gaineko iritzia emango dute.

Nekazaritza Industriako zein Osasuneko Erregistroak eduki behar dituzte.

## 5.- EZTIA

Etiketari ondoko hauek agertu behar dira:

- Produktuaren izendapena (eztia, milalreak, erromeroa,...)
- Eduki garbia: gramoak eta kilogramoak
- Gutxienezko iraupen data
- Egoitzaren izena eta helbidea
- Fabrikazio lotearen identifikazioa
- Erleek egindako gaineko produktuak (polena, erregina jelea,...) ere ontziratuta eta ekitetatuta egon behar dira.
- Ontzi bakoitzak prezioa izan behar du agerian.
- 

Eztia aurkezteko honako arau hauek bete behar dira derrigorrez:

- Bizkaiko Erlazainen elkartearen etiketa eduki behar dute ipinita ontziek.

Goizeko 10:00etatik aurrera epaimahaikoek eztiaren kalitatearen gaineko iritzia emango dute.

## 6.- GAZTA

Establezimenduaren titularrari derrigorrezko OEI eskatuko zaio (osasun erregistroko zenbakia)

Gaztaren etiketari ondoko hauek agertu behar dira:

- Gazta mota
- Gazta bakoitzaren pisua gramotan edo kilotan
- Noiz egin den eta noiz arte kontsumitu daitekeen

Idiazabalgo Jatorrizko Izendapenaren kasuan, etiketa zenbakitua eta kaseinaren plaka.

Gazta zati bakoitzak prezioa izan behar du agerian.

Idiazabal Jatorri Izenekoa izango da gazta, edota, bestela, ARTZAI-GAZTA elkarteko ekoizleena.

Partaideek eurek egindako gaztak aurkeztu behar dituzte, eta goizeko 10:00etatik aurrera epaimahaikoek gazten kalitatearen gaineko iritzia emango dute.

## **XEDAPEN OROKORRAK**

- Erakustoki guztietan egon behar dira erreklamazio-orriak.
- Araudi hau ez betetzeak sariak jasotzeko eskubidea galtzea dakar.
- Antolatzaileek edo epaimahaikoek sari batzuk emateko arrazoirik ez dagoela iritziz gero, sariak eman barik uzteko eskubidea dute. Ez dago horrelako erabakien aurka egiterik.
- Erakunde antolatzaileak postuetan jarriko ditu ekoizlearen izen-deiturak eta ekoizle bakoitzari zenbaki bana emango dio; horretara, ekoizleak antolatzaileek zehaztutako postuan jarri behar ditu bere produktuak, ez beste batean.
- Produktuak goizeko 10:00etatik aurrera egon behar dira ikusgai, eta erakustokia arratsaldeko 15:30ak arte egongo da zabalik. Goizeko 11:00etan ekin ahal izango diote saltzeari.
- Lehiakideak bere gain hartu behar ditu garraioa eta erakusketako produktuak jartzeko ardura.
- Erakustokiak antolatzaileek jarriko dituzte.
- Antolatzaileek eta epaimahaikoek produktuen jatorria egiaztatze eskubidea dute, beraz, jatorriari buruzko zalantzarik badago, produktuak hazitako ortura joango dira egiaztatzerara.
- Produktuak baserrian bertan ekoiztutakoak edota ondoko udalerrri bateko baserri batekoak izan daitezke. Beste baserriko produktuak ezin izango dira urte osoan saldutako guztiaren %25a baino gehiago izan, eta behar den moduan bereiztuko dira. Saltokia baserriaren izen eta produkzioekin identifikatu behar da. Saltoki hori baserriaren luzapentzat hartuko da, ustiapenaren zatitzat, alegia.
- Sariak arratsaldeko 14:00etan banatuko dira, eta dietak arratsaldeko 15:00etan.

## **SARIAK ETA DIETAK**

### **1.- ORTUARIEN eta FRUTEN LEHIAKETA**

- 1. saria: 125 €
- 2. saria: 90 €
- Dieta: 60 €

### **2.- MINTEGIETAKO LANDAREEN LEHIAKETA**

- 1. saria: 100 €
- 2. saria: 75 €
- Dieta: 50 €

### **3.- TXAKOLIN LEHIAKETA**

- 1. saria: 100 €
- 2. saria: 75 €

### **4.- OGI LEHIAKETA**

1. saria: 100 €
2. saria: 75 €

5.- EZTI LEHIAKETA

1. saria: 100 €
2. saria: 75 €

6.- GAZTA LEHIAKETA

1. saria: 100 €
2. saria: 75 €

Ondoen apaindutako erakustokiari 125 euroko saria emango zaio.

**OHARRA: Azoka-eremua leku aldetik mugatuta dagoenez, antolatzaileek eurek aukeratuko dituzte erakusleak, lehiaketaren atal bakoitzean erakusleek izena emandako hurrenkeraren arabera.**